



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko uztailaren 30a

78. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F S A I L A:

#### Galderak:

- Galdera, Baluarteko Ganbera Aretoan eginiko jardueri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak batasunaren intereseko lekuak kudeatzeko planetarako aurreikuspen ekonomikoa egiten ari ote den. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Barañaingo Auditorioarekiko hitzarmenerako kontusailaren zuzkidurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Kultura Ministerioak Prentsa Historikoaren Liburutegi Birtuala abiarazi izanari eta Foru Komunitatea autonomia erkidegoen hasierako zerrendatik kanpo geratu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak karobien hondakinei edo modalitateei buruzko katalogorik ba ote duen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuari lotutako deialdiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, jakiteko zenbat denbora igarotzen den oinarrizko errenta eskatzen denetik egiaz jasotzen den arte. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legearen arabera oinarrizko errenta ukatzeko espedientei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, “Prestakuntzaren Europako Erakusketa. Iruña 2009” izenekorako Nafarroako Gobernuak jarritako diruari Nafarroako Gobernuak jarritako diruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, jakiteko zer konponbide eman behar dien Nafarroako Gobernuak Internetik ez duten langileei eta jubilatuei, beren nominaren ordainagiria ezin izanen dutelako eskuratu. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Hondakinen Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, ondoko plan estrategikoen egoerari buruzkoa: Abeltzaintza Sektorearen Plan Estrategikoa, Elikagaien Kalitatearen eta Segurtasunaren Plan Estrategikoa eta Jatorrizko Deiturarako Mahastizaintzaren eta Ardogintzaren Sektorearen Plan Estrategikoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- Galdera, herrilurren arloko auziei buruzko defentsa juridikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Cascanteko Juan Burgos enpresaren instalazioak izandakoetan enpresa bat jartzeko asmoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, jakiteko noiz aldatuko duen Nafarroako Gobernuak Nekazaritza Finantzazioari buruzko Foru Legea. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, jakiteko zer gastu ordaindu dituen Nafarroako Gobernuak nahiz beste edozein fundazio edo enpresa publikok Tuterako katedraleko obretan. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik ez den errespetatzen euskarazko testuen tamaina eremu euskalduneko errepide-etako turismo seinaleetan. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, eskola garraioa erabiltzen duten ikasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Nafarroan AHTaren obrak egin ahal izateko finantzaketa dela-eta Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuko lehendakariari igorritako gutunetan ezarritako helburuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, jakiteko zer formula zehatz erabili den Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuan dirusarreraren atal bakoitzean. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Leader Ardatzeko kofinantzaketako diruaren erabilerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planaren barruan 2007an eta 2008an guztira betetako gastuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Baluarteke Ganbera Aretoan eginiko jardueri buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Baluarteke Ganbera Aretoan eginiko jardueri buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 3ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Baluarteke Ganbera Aretoan inauguratu zenetik eginiko jardueri buruz, urtearen arabera zehaztuta –Ganbera Aretoan eginiko jardueren ehunekoa, jarduera kopuru osoari dagokionez; Ganbera Aretoan eginiko jardueren ehunekoa, Baluarteke egin den jarduera kopuru osoari dagokionez; Ganbera Aretoak duen eragina eraikinararen ustiatetari buruzko kontuetan–. Hona Viánako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismoko kontseilariaren erantzuna:

1.- Baluarteke Ganbera Aretoan inauguratu zenetik eginiko jardueren zerrenda, urtearen arabera zehaztuta:

#### **2003. urtea**

##### Kultur jarduerak

La Ventana irratsaioa

Marina operaren entsegua

Konstituzioaren egunaren ospakizuna

##### Bestelako jarduketak

Kalitateari buruzko jardunaldia

Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren bilera

Robert McKee, zinema-gidoien ikastaroa

Elikagaien Segurtasunari buruzko Kongresua  
Emakume Langilearen Saria ematea  
Europako Foroaren bilera  
EHNren bilera

*2003ko ekitaldiak, guztira: 10*

*2003ko okupazio egunak, guztira: 15*

#### **2004. urtea**

##### Kultur jarduerak

No es un día cualquiera irratsaioa

No es un día cualquiera irratsaioa

Ganbera Abesbatzaren entsegua

L'occasione fa il ladro operaren entsegua

L'occasione fa il ladro operaren entsegua

L'occasione fa il ladro operaren entsegua

Kontzertu pedagogikoa

Ganbera Abesbatzaren kontzertua

Interplus kontzertua

Filma, zuzeneko pianoarekin (J. Pérez de Azpeitia).

Nafarroako Jaialdiak: F.W. Murnau-ren Fausto filma

Nafarroako Jaialdiak: C.T. Dreyer-en Juana de Arco filma

Nafarroako Jaialdiak: L. Buñuel-en La vía láctea filma

Nafarroako Jaialdiak: Rossellini-ren Roma filma

Nafarroako Jaialdiak: J.L. Godard-en Al final de la escapada filma

Nafarroako Jaialdiak: I. Bergman-en Gritos y susurros filma

Nafarroako Jaialdiak: L.V. Trier-en El movimiento dogma filma

Erregio Etxeen Jaialdia

Erregio Etxeen Jaialdia

Iruñeko Orfeoien kontzertua

Irabia Ikastetxearen Jaialdia

Haendel-en Mesias

Bestelako jarduketak

Banco de Vasconiaren bilera  
 Neguko bide-zaintzari buruzko jardunaldiak  
 BSCHren bilera  
 Club Deportivo Navarra-ren bilera  
 Estudio Goal-en aurkezpena  
 Ostalaritzako Kooperatibaren biltzarra  
 EFQMren bilera  
 Euro 6000ren konbentzioa  
 Eroskiren kontsumitzaileen batzarra  
 Jardunaldi juridiko sanitarioak  
 Emakumeak Europako Lankidetzan. Bilera  
 Ingeniarien Elkargoaren urteurrena  
 ESINA. Graduazioa  
 Portland-en bilera  
 Cinfa laborategien bilera  
 CCOO-ren bilera  
 Anaporc-en kongresua  
 Schwarzkopf-en aurkezpena  
 Cibarc-en kongresua  
 Minbiziaren aurkako elkartearen jardunaldia  
 Dietisten kongresua  
 L'Oreal-en aurkezpena  
 Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentu-  
 aren jardunaldia  
 Turismo jardunaldiak  
 Nafarroako saria kalitateari  
 FEMP-en bilera  
 Endoskopia digestiboari buruzko kongresua  
 Moda desfilea  
 Nafarroako Aratxea kongresua  
 Aranzadiren aurkezpena  
 Europako Foroaren bilera  
 Txemi Estilistas-en aurkezpena  
*2003ko ekitaldiak, guztira: 54*  
*2004ko okupazio egunak, guztira: 70*

**2005. urtea**Kultur jarduerak

Europako Foroaren antzerki-lana  
 Iñaki Ochoa de Olzak aurkeztutako dokumentala  
 ETBren Iparragirre Sariak  
 Anda ya irratsaioa  
 Gabino Diegoren monologoa  
 Alzheimer-aren nazioarteko eguneko kontzertua,  
 Loiolako haur kantariena  
 2005eko topaketen azken gala

Bestelako jarduketak

Nekazaritza Departamentuaren aurkezpena  
 Kaiku txirrindulari taldearen aurkezpena  
 Inbertsio Funtsaren aurkezpena  
 VOLKSWAGENen modelo berrien aurkezpena  
 VOLKSWAGENen ikastaroa  
 VOLKSWAGENen ikastaroa  
 Esic-en aurkezpena  
 Bide segurtasunari buruzko jardunaldia  
 Fiteqa kongresua  
 Eroskiren kontsumitzaileen biltzarra  
 Hirigintza-zuzenbideari buruzko kongresua  
 Kontzertazio sozialaren X. urteurrena  
 ESINA. Graduazioa  
 Nafarroako Mutuaren urteurrena  
 UGTren kongresua  
 Orvalaiz-en bilera  
 El Corte Inglés-en prestakuntza-saioa  
 Psikiatria kongresua  
 Telefónicaren bilera  
 Erantzukizun zibilari buruzko kongresua  
 ELA-Metalaren kongresua  
 Nekazaritza Departamentuaren jardunaldia  
 Kalitate sariak  
 Europako Foroaren graduazioa  
 Arartekoaren hitzaldia  
 EHNren bilera  
 Baigorri Argitaletxearen aurkezpena  
*2005eko ekitaldiak, guztira: 34*  
*2005eko okupazio egunak, guztira: 58*

**2006. urtea**Kultur jarduerak

Pablo Sarasate Orkestraren entsegua  
 No somos nada, Iñaki Ochoa de Olzak aurkeztuta-  
 ko dokumentala  
 Boliviako San Ignacio de Moxos-eko orkestra  
 Europako Foroaren antzerki-lana  
 Antzerkia: El Florido Pensil (2 emanaldi)  
 Erregio Etxeen Jaialdia  
 Espainia iparraldeko elkarte hispaniar eta alemani-  
 arraren XIV. kultur astea  
 Artista Gazteen Topaketen azken gala eta Taxi Dri-  
 vers taldearen kontzertua  
 Mozart Zikloaren muntaia  
 Mozart Zikloa: Lucille Chung-en eta Alessio Bax-  
 en piano kontzertua

Mozart Zikloa: Alessio Bax-en piano kontzertua  
 Mozart Zikloa: Tatiana Kriukova-ren piano kontzertua  
 Mozart Zikloa: Joaquín Atxukarro-ren piano kontzertua  
 Gabon-kanten lehiaketa

#### Bestelako jarduketak

Kaiku txirindulari taldearen aurkezpena  
 Pean-en bilera  
 Lurraldearen Antolamendu Planari buruzko jardunaldia  
 Erizainen Elkargo Ofizialaren jardunaldia  
 Nanoteknologia kongresua  
 Comenius-en jardunaldiak  
 Nafarroako Kutxaren aurkezpena  
 Hartzekodunen Batzarraren bilera  
 Hoy es Marketing bilera  
 Entzierroaren I. Azoka. Hitzaldiak  
 Secpre-ren Kongresu Nazionala  
 Esperanza Aguirrerren hitzaldia  
 Istripuetako salbamenduei buruzko jardunaldiak  
 Cibarq-en kongresua  
 UPNren bilera  
 IATren kongresua  
 Zabala industria-aholkularitzako bilera  
 ESINA. Graduazioa  
 Geriatriako kongresua  
 Semicyuc-en kongresua  
 Lagun Aroren konbentzioa  
 Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen gaineko jardunaldiak  
 Erruki etxeen kongresuaren inaugurazioa  
 Decomodaren ezkongaien desfilea  
 EVA gastronomia sariak  
 Exclusivas Bustoren desfilea  
 Lurraldearen Antolamendu Planari buruzko bilera  
 Alboan-en jardunaldiak  
 Arfe-ren kongresua  
 Acciona-ren bilera  
*2006ko ekitaldiak, guztira: 45*  
*2006ko okupazio egunak, guztira: 69*

#### **2007. urtea**

##### Kultur jarduerak

Telemaratoia  
 Iñaki Ochoa de Olzaren proiektzioak

La Traviata operaren proiektzioa, Operaren Nazioarteko Egunaren kariatara  
 Orquesta de Cambra de L'Empordà  
 Herrera en la onda irratsaioa  
 Anda ya irratsaioa  
 Antzerki eta dantza ikuskizuna  
 Rodrigo Leaoren kontzertua  
 A vivir que son dos días irratsaioa  
 A vivir que son dos días irratsaioa  
 I. Albéniz fundazioaren kontzertua  
 No es un día cualquiera irratsaioa  
 No es un día cualquiera irratsaioa  
 No es un día cualquiera irratsaioa  
 Barclays-en kontzertua  
 Pragako nazioarteko orkestra  
 Erregio Etxeen Jaialdia  
 Erregio Etxeen Jaialdia  
 Artista Gazteen Topaketen gala  
 Gabon-kanten lehiaketa  
 Uganda Natumayini - bizitzak salbatzeko musika

#### Bestelako jarduketak

Jaiotzazaleen elkartearen bilera  
 Nafarroa Bairen bilera  
 Boscos txapelketaren bilera  
 Bizkartzainen kongresu nazionala  
 Pedagogia jardunaldiak  
 ASBren aurkezpena  
 Escaparate aldizkariaren aurkezpena  
 L'Oréal-en aurkezpena  
 Hoy es Marketing  
 Teknologia Planaren aurkezpena  
 Erizainen Elkargoaren bilera  
 Barazkiak bizi kongresua  
 Cinfa-ren bilera  
 Eva sariak  
 Gastronomia kongresua  
 Ezkongaien desfilea  
 L. Rojas Marcos-en hitzaldia  
 Spicers-en konbentzioa  
 Hematologia kongresua  
 ITG Ganadero-ren jardunaldia  
 Emaginen kongresua  
 ITG Ganadero-ren jardunaldia  
 Mankomunitatearen XXV. urteurrena  
*2007ko ekitaldiak, guztira: 44*  
*2007ko okupazio egunak, guztira: 63*

**2008. urtea**Kultur jarduerak

Ensemble Durendal. Berpizkundeko musika, Egu-  
berritako ipuin baterako  
Brundibar operaren sala osagarria  
Brundibar operaren sala osagarria  
Brundibar operaren sala osagarria  
Brundibar operaren sala osagarria  
Brundibar operaren sala osagarria  
Navartur-en kontzertua  
La Cenerentola operaren entseguak  
La Cenerentola operaren entseguak  
El show debe continuar (Nafarroako Ostalaritzako  
Enpresaburuen Elkarteak)  
Ukrainako Irrati Nazionalaren Orkestra Sinfonikoa  
Hari-instrumentuen jaialdia  
Pablo Sarasateren omenezko kontzertua  
Kirolaren gala  
Erregio Etxeen Jaialdia  
Erregio Etxeen Jaialdia  
Gabon-kanten eskolen arteko III. lehiaketa  
Joshua Nelson & The Klezmatics taldearen kon-  
zertua  
Iruñeko Kontserbatorioaren historiari buruzko filma

Bestelako jarduketak

Allianz-en konbentzioa  
Atelier ile-apaindegia erakustaldia  
Telefónicaren konbentzioa  
Iberdrolaren konbentzioa  
Turismoaren gala

Barazkiak bizi kongresua  
Hoy es Marketing jardunaldia  
Nafarroa 2012 Planaren aurkezpena  
Erizainen Elkargoaren jardunaldia  
Human-en bilera  
Tribucan-en bilera  
L'Oreal-en aurkezpena  
La Caixa-ren hitzaldia  
Moderna Planaren aurkezpena  
Eva sariak  
Mikrouhinen nazioarteko kongresua  
Sektore Publikoaren Auditoretzari buruzko kongre-  
sua  
Artritisari buruzko sinposioa  
Euskaltzaindiaren kongresua  
La Caixa-ren bilera  
Huntington gaixotasunari buruzko bilera  
Zientzialarien topaketa nazionala  
Cibarq-en kongresua  
L'Oreal-en bilera  
Jatorrizko Deituraren Kontseilu Aholku-emailearen  
bilera  
Nafarroa Nazioarteko Planaren aurkezpena  
First Lego League  
Solartia-ren jardunaldia  
Convatec-en jardunaldia  
Iberdrola saria  
Volcán fundazioa  
*2008ko ekitaldiak, guztira: 50*  
*2008ko okupazio egunak, guztira: 67*

Ganbera Aretoan eginiko jarduketak

Urteak	Jarduketak guztira	Okupazio egunak, guztira
2003	10	15
2004	54	70
2005	34	58
2006	45	69
2007	44	63
2008	50	67
Total	237	342

2.- Areto horretan inauguratu zenetik eginiko jarduera hertsiki kulturalen zerrenda, urtearen araberaz zehaztuta.

### 2003. urtea

La Ventana irratsaioa  
Marina operaren entsegua  
Konstituzioaren egunaren ospakizuna  
2003ko kultur ekitaldiak, guztira: 3  
2003ko okupazio egunak, guztira: 3

### 2004. urtea

No es un día cualquiera irratsaioa  
No es un día cualquiera irratsaioa  
Ganbera Abesbatzaren entsegua  
L'occasione fa il ladro operaren entsegua  
L'occasione fa il ladro operaren entsegua  
L'occasione fa il ladro operaren entsegua  
Kontzertu pedagogikoa  
Ganbera Abesbatzaren kontzertua  
Interplus kontzertua  
Filma, zuzeneko musikarekin  
Nafarroako Jaialdiak: F.W. Murnau-ren Fausto filma  
Nafarroako Jaialdiak: C.T. Dreyer-en Juana de Arco filma  
Nafarroako Jaialdiak: L. Buñuel-en La vía láctea filma  
Nafarroako Jaialdiak: Rossellini-ren Roma filma  
Nafarroako Jaialdiak: J.L. Godard-en Al final de la escapada filma  
Nafarroako Jaialdiak: I. Bergman-en Gritos y susurros filma  
Nafarroako Jaialdiak: L.V. Trier-en El movimiento dogma filma  
Erregio Etxeen Jaialdia  
Erregio Etxeen Jaialdia  
Iruñeko Orfeoaren kontzertua  
Irabia Ikastetxearen Jaialdia  
Haendel-en Mesias  
*2004ko kultur ekitaldiak, guztira: 22*  
*2004ko okupazio egunak, guztira: 22*

### 2005. urtea

Europako Foroaren antzerki-lana  
Iñaki Ochoa de Olzak aurkeztutako dokumentala  
ETBren Iparragirre Sariak  
Anda ya irratsaioa  
Gabino Diegoren monologoa

Alzheimer-aren nazioarteko eguneko kontzertua,  
Loiolako haur kantariena

2005eko topaketan azken gala  
*2005eko kultur ekitaldiak, guztira: 7*  
*2005eko okupazio egunak, guztira: 8*

### 2006. urtea

Pablo Sarasate Orkestraren entsegua  
No somos nada, Iñaki Ochoa de Olzak aurkeztutako dokumentala  
Boliviako San Ignacio de Moxos-eko orkestra  
Europako Foroaren antzerki-lana  
Antzerkia: El Florido Pensil (2 emanaldi)  
Erregio Etxeen Jaialdia  
Espainia iparraldeko elkarte hispaniar eta alemaniarren XIV. kultur astea  
Artista Gazteen Topaketan azken gala eta Taxi Drivers taldearen kontzertua  
Mozart Zikloaren muntaia  
Mozart Zikloa: Lucille Chung-en eta Alessio Bax-en piano kontzertua  
Mozart Zikloa: Alessio Bax-en piano kontzertua  
Mozart Zikloa: Tatiana Kriukova-ren piano kontzertua  
Mozart Zikloa: Joaquín Atxukarro-ren piano kontzertua  
Gabon-kanten lehiaketa  
*2006ko kultur ekitaldiak, guztira: 15*  
*2006ko okupazio egunak, guztira: 14*

### 2007. urtea

Telemaratoia  
Iñaki Ochoa de Olzaren proiektzioak  
La Traviata operaren proiektzioa, Operaren Nazioarteko Egunaren kariatara  
Orquesta de Cambra de L'Empordà  
Herrera en la onda irratsaioa  
Anda ya irratsaioa  
Antzerki eta dantza ikuskizuna  
Rodrigo Leaoren kontzertua  
A vivir que son dos días irratsaioa  
A vivir que son dos días irratsaioa  
I. Albéniz fundazioaren kontzertua  
No es un día cualquiera irratsaioa  
No es un día cualquiera irratsaioa  
No es un día cualquiera irratsaioa  
Barclays-en kontzertua  
Pragako nazioarteko orkestra

Erregio Etxeen Jaialdia  
 Erregio Etxeen Jaialdia  
 Artista Gazteen Topaketen gala  
 Gabon-kanten lehiaketa  
 Uganda Natumayini-bizitzak salbatzeko musika  
*2007ko kultur ekitaldiak, guztira: 21*  
*2007ko okupazio egunak, guztira: 21*

#### 2008. urtea

Ensemble Durendal. Berpizkundeko musika, Egu-  
 berritako ipuin baterako  
 Brundibar operaren sala osagarria  
 Brundibar operaren sala osagarria  
 Brundibar operaren sala osagarria  
 Brundibar operaren sala osagarria  
 Brundibar operaren sala osagarria  
 Navartur-en kontzertua

La Cenerentola operaren entseguak  
 La Cenerentola operaren entseguak  
 El show debe continuar  
 Ukrainako Irrati Nazionalaren Orkestra Sinfonikoa  
 El show debe continuar (Nafarroako Ostalaritzako  
 Enpresaburuen Elkarteak)  
 Pablo Sarasateren omenezko kontzertua  
 Kirolaren gala  
 Erregio Etxeen Jaialdia  
 Erregio Etxeen Jaialdia  
 Gabon-kanten eskolen arteko III. lehiaketa  
 Joshua Nelson & The Klezematics taldearen kon-  
 zertua  
 Iruñeko Kontserbatorioaren historiari buruzko filma  
*2008ko kultur ekitaldiak, guztira: 19*  
*2008ko okupazio egunak, guztira: 20*

#### Ganbera Aretoan eginiko kultur ekitaldiak

Urteak	Jarduketak, guztira	Okupazio egunak, guztira
2003	3	3
2004	22	22
2005	7	8
2006	15	14
2007	21	21
2008	19	20
Total	87	88

3. Ganbera Aretoan eginiko jarduketaren ehuneko-  
 koa, jarduketa kopuru osoari dagokionez.

Azken 5 urte baino zerbait gehiago hauetan  
 237 jarduketa egin dira Baluarteke Ganbera Areto-  
 an; hortaz, 87 kultur jarduketa horiek egindako jar-  
 duketa guztien % 36,7 egiten dute.

4. Ganbera Aretoan eginiko jarduketaren ehuneko-  
 koa, Baluarteke egin den jarduketa kopuru osoari  
 dagokionez; Ganbera Aretoak duen eragina eraiki-  
 naren ustiatetari buruzko kontuetan.

Azken 5 urte baino zerbait gehiago hauetan  
 744 kultur jarduketa egin dira Baluarteke Ganbera  
 aretoan; hortaz, 87 kultur jarduketa horiek eginda-  
 ko jarduketa guztien % 12 egiten dute.

5. Ganbera Aretoak duen eragina eraikinaren  
 ustiatetari buruzko kontuetan.

Azken bost urte eta bi hilabete hauetan 237  
 ekitaldi egin dira Ganbera aretoan, eta fakturazioa  
 483.000 eurokoa izan da; horrek Baluartekearen  
 oinarritzko jarduketa guztien % 2 inguru egiten du.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parla-  
 mentu-  
 ko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatuta-  
 koa betetzeko.

Iruñean, 2009ko apirilaren 15ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turis-  
 mo Departamentuko kontseilaria



## **Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak batasunaren intereseko lekuak kudeatzeko planetarako aurreikuspen ekonomikoa egiten ari ote den.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko ea Nafarroako Gobernuak batasunaren intereseko lekuak kudeatzeko planetarako aurreikuspen ekonomikoa egiten ari ote den.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 31ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroan diren batasunaren intereseko lekuen kudeaketa-planak egiteko aurreikuspen ekonomikoei buruz (PES-084/09). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren legegintzaldi honetako lehentasune-

tako bat da Natura 2000 sarea garatzea. Horrenbestez, eta Europako arauetan ezarritako egutegiak ikusita, proposatutako lekuak kontserbazio bereziko eremutzat onesteko, leku horietako kudeaketa planak egiteko aurreikuspen bat egin da. Haren laburpena bere garaian jakinarazi zitzazun. Honakoak dira, hain zuzen ere:

Erregio Biogeografiko Alpinoko BILa: 2009ko abendua.

Erregio Biogeografiko Atlantikoko BILa: 2010eko abendua.

Erregio Biogeografiko Mediterraneoko BILa: 2012ko uztaila.

Natura 2000ko plangintza lan horiei ekiteko, departamentuak behar den aurreikuspen ekonomikoa egin du. Orain arte bezalaxe, ekitaldi honetan eta hurrengo ekitaldietan izanen du oinarria.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko apirilaren 16an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

## **Galdera, Barañaingo Auditorioarekiko hitzarmenerako kontusailaren zuzkidurari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Barañaingo Auditorioarekiko hitzarmenerako kontusailaren zuzkidurari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentu-

ko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 24ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Barañaingo Auditoriorako kontusailari buruz (PES-76). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuak kontusail hori handitzeko asmoa du.

2. Ez da izanen kontusail berririk Barañaingo Auditorioarekiko hitzarmenerako.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko apirilaren 17an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria

## **Galdera, Kultura Ministerioak Prentsa Historikoaren Liburutegi Birtuala abiarazi izanari eta Foru Komunitatea autonomia erkidegoen hasierako zerrendatik kanpo geratu izanari buruzkoa.**

**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Kultura Ministerioak Prentsa Historikoaren Liburutegi Birtuala abiarazi izanari eta Foru Komunitatea autonomia erkidegoen hasierako zerrendatik kanpo geratu izanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 24ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Prentsa Historikoaren Liburutegi Birtualari buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak hasi al du elkarrizketarik Kultura Ministerioarekin aipatu liburutegi birtualean sartzeko? Hala bada, jakin nahiko nuke zer administrazio-urrats egin diren eta noiz.

Bai. Nafarroako Gobernuak zenbait zuzemen egin ditu Kultura Ministerioarekin, liburutegi birtual horretan sartzeko eta laguntzeko. Hori dela eta ondokoa adierazi behar dizut:

Kultura Ministerioako Liburu, Artxibo eta Liburutegien Zuzendaritza Nagusiak eta Nafarroako Gober-

nuak, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak ordezkaturak, hitzarmen bat sinatu zuten 2008ko maiatzaren 19an, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuan gordeta dauden paperezko argitalpenei tratamendu bibliografikoa ematek eta horiek eskaneatzetik heldu den baliabide digital bat sortze aldera.

Aipatu hitzarmena Nafarroako Gobernuaren 2008ko maiatzaren 5eko erabaki bidez onetsi zen.

Iragan martxoaren 3an, Kulturako ministro César Antonio Molina jaunak proiektua aurkeztu zuen Madrileko Prentsaren Elkartean.

Kultura Ministerioak gonbidatu al du Nafarroako Gobernuak liburutegi birtual horrekin bat egitera? Hala bada, adierazi Ministerioak noiz igorri zuen gonbita.

Bai. 2008aren hasieran abiarazi ziren Kultura Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko elkarrizketak, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuan gordeta dauden paperezko argitalpenak Prentsa Historikoaren Liburutegi Birtualean sartze aldera.

Zergatik da Nafarroa liburutegi birtualean parte hartzen duten entitateen zerrenda ofizialean agertzen ez diren erkidego bakarretakoa? Hori justifikatzen duten arrazoiak zeintzuk diren jakin nahiko nuke.

Nafarroa badago aipatu liburutegi birtualean parte hartzen duten entitateen zerrenda, eta horrela agertzen da Kultura Ministerioaren webgunean. <http://prensahistorica.mcu.es/es/estaticos/contenido.cmd?pagina=estaticos/presentacion2>

Webgune horretan sartu eta “búsqueda simple” jartzen duen tokian sartuz gero, liburutegien araberako bilaketa irekitzean ikusi ahal izanen duzu agertzen direla Nafarroako Artxibo Nagusia –11 goiburu– eta Nafarroako Liburutegi Nagusia –34 goiburu–.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko apirilaren 16an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---

## **Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak karobien hondakinei edo modalitateei buruzko katalogorik ba ote duen jakiteko.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak karobien hondakinei edo modalitateei buruzko katalogorik ba ote duen jakiteko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak gal-

dera egin du karobien katalogoari buruz (PES-107). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak ez du inolako azterlanik egin karobien hondakinei edo modalitateei buruz. Haien katalogorik ere ez du egin.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko apirilaren 17an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria

## **Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuari lotutako deialdiei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuari lotutako deialdiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du orain arte eginiko deialdien zerrendari buruz (PES-113), eta idatziz erantzuteko eskatu du. Hona erantzuna:

1. Honakoa da onetsi diren deialdien zerrenda:

#### Kultura Zuzendaritza Nagusia

- Nafarroako kultur ondarearen ondasun higiezinak zaindu, sendotu, gaiberritu eta zaharbertzetezko dirulaguntzak, 2009ko ekitaldirako.

- 2009. urterako Ikustokia Nazioarteko Jaialdiaren bosgarren edizioa.

- Museoen Zerbitzuan aritzeko prestakuntzako beka.

- Nafarroako udal eta kontzejuetan modu bateratuan arte eta kultur emanaldiak antolatze laguntzak.

- Udal eta kontzejuentzako dirulaguntzak, Artea eta Kultura programa osatzen duten kultur jarduerak egiteko.

- Sorkuntza zinematografikorako laguntzak - film luzeak.

- Sorkuntza artistikorako esparruak alokatze laguntzak.

- Arte eta kultur erakundeentzako laguntzak.

- Muntaketa eszenikoetarako laguntzak.

- Kultur zabalkuntzarako programak antolatze laguntzak.

- Kultur trukeetarako programetan, biretan, biltzarretan, jardunaldietan eta jaialdietan parte hartze laguntzak.

- Ikus-entzunezkoen sorkuntzarako laguntzak.

- Arte plastikoaren eta argazkilaritzaren arloko sormenerako laguntzak.

- Arte eta kultur erakundeen ekipamendurako laguntzak.

- Museoen eta bilduma museografikoen funtzionamendurako dirulaguntzak, 2009. urterako.

- Museoen eta bilduma museografikoen jardueretarako eta ekintzetarako dirulaguntzak, 2009. urterako.

- Museoen eta bilduma museografikoen inbertsioetarako dirulaguntzak, 2009. urterako.

- Nafarroako ondare historikoan sartuta dauden ondasun higigarriak kontserbatu, zaharberritu eta babesteko dirulaguntzak.

- Nafarroako Foru Komunitateko pergaminoak eta mapa historikoak berrizatzeko eta digitalizatzeko laguntzak.

- 2009. urtean Nafarroako liburutegi publikoetako katalogoak automatizatzeko dirulaguntzak.

- 2008an Nafarroako liburutegi publikoetan langileak kontratatze laguntzak.

- 2008an Nafarroako liburutegi publikoetan irakurketa eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilera sustatzeko jarduerak antolatze laguntzak.

- Zinematografia eta ikus-entzunezko arte jaialdi eta jardunaldiak antolatu eta burutzeko laguntzak.

- Literatur sorkuntzaren 2009ko saria.

- Arte ikasketetan sakontzeko 2009ko beka.

- Ediziorako laguntzak

#### Turismoko Zuzendaritza Nagusia

- Toki entitateentzako eta turismo partzuergoentzako dirulaguntzak, 2008tik 2011ra turismo produktuak garatzeko inbertsioak egiteko.

- 2008-2011 epean enpresa txiki eta ertainek Nafarroan turismo azpiegiturak sortu eta modernizatzeko dirulaguntzak.

- Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurriei buruzko azaroaren 6ko 18/2008 Foru Legearen esparruan, inbertsioak finantzatzeko kreditu-eragiketei abalorde moduko laguntzak.

- Unibertsitate tituludunentzako prestakuntzako lau beka, Turismo Zuzendaritza Nagusiko Marketing Zerbitzuan aritzeko.

- Turismoko elkarteek, toki entitateek eta turismoko partzuergoek turismoa garatzeko egiten dituzten jardueretarako 2009ko laguntzak.

- Establezimendu turistikoek kalitate turistikoaren "Q" ziurtagiria lortzeko eta mantentzeko 2009ko laguntzak.

- 2009an Nafarroan hartzaile lanak egiten dituzten bidaia agentziendako dirulaguntzak.

- "Nafarroako Erresuma" Turismo Sariak (2009. urtea).

- Turismoko elkarteek, toki entitateek eta turismoko partzuergoek turismoa sustatzeko egiten dituzten jardueretarako 2009ko laguntzak.

- Interes turistiko eta artistikoko ondasun partikularrak jendeari erakustea sustatzeko 2009. urteko laguntzak.

2. Ez dago egin gabe geratu den deialdirik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko apirilaren 17an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, jakiteko zenbat denbora igarotzen den oinarrizko errenta eskatzen denetik egiaz jasotzen den arte.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du jakiteko zenbat denbora igarotzen den oinarrizko errenta eskatzen denetik egiaz jasotzen den arte.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 24ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak oinarrizko errenta izapidetzeari buruzko galdera egin du (PES 75-09 idatzizko galdera). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Aurreko urtean, espediente bakoitzeko 52,94 egun behar izan dira, batez beste, laguntza izapidetzeko –eskabidea jasotzen denetik prestazioa egiaz kobratzen den bitarteko denbora kontuan hartuta–.

Edozein modutan, izapidetzeko epe hori aldatu egiten da zenbait faktoreren eraginez, hala nola jasotako gizarte-informazioaren kalitate maila, beharrezkoa dena eskabidea behar bezala balio-esteko, betekizunak betetzen direla frogatzeko dokumentazioaren kasuan kasuko ekarpena, izapidetzen ari diren espedienteen kopurua, eta abar.

Inguruabar horiek guztiak eta gisako beste batzuk hartu behar dira kontuan gastu publikoa dakarren espediente bat behar bezalako zorrotasunez eta bermeekin izapidetzerakoan.

Adierazitakoa gorabehera, departamentu honentzat helburu ukaezina da bateragarriak izatea aipatutako administrazio-bermeak eta edozein espediente –eta bereziki oinarrizko errentarenak– ahalik eta azkarren izapidetzea, espediente horiek oinarrizko laguntza behar duten pertsonenak direlako.

Halatan, Gizarte zerbitzu orokorren zorroa onetsi zuen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuak indarra hartu izanak ekarri zuen oinarrizko errenta emateko epea 45 egunekoa izatea.

Hori helburu, prestazio horri buruzko araudia- ren aldaketa prestatzen ari gara, besteak beste, gaur egun, eta prestazioa izapidetzeko prozesuak

berraztertzen ari gara, ahalik eta gehien murrizte aldera izapidetzeko epeak, funts publikoen erabilera eskatzen duen berme-esparruaren barruan betiere.

Iruñean, 2009ko apirilaren 14an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

---

## **Galdera, uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legearen arabera oinarrizko errenta ukatzeko espedienteei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legearen arabera oinarrizko errenta ukatzeko espedienteei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 24ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legearen arabera oinarrizko errenta ukatzeko espedi-

enteei buruz (PES 13-09). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

2009ko lehen hiru hilabeteetan oinarrizko errentako 1.298 eskabide ebatzi dira. Eskabide horietarik 160 –eskabide guztien % 12,33 beraz– ukatu dira, arrazoi ezberdinak direla kausa.

Horietarik 38 ukatu dira eskatzaileak ez duela frogatu eskabidea aurkeztu aurreko hamabi hilabeteetan Nafarroan etenik gabe bizi izana, Eskubide Sozialen Gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legeko 5.1.c) artikulua, uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legearen bidez gaur egun duen testuaren arabera, ezartzen duenari jarraikiz.

Iruñean, 2009ko apirilaren 14an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, “Prestakuntzaren Europako Erakusketa. Iruña 2009” izeneko- ko Nafarroako Gobernuak jarritako diruari Nafarroako Gobernuak jarritako diruari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du “Prestakuntzaren Europako Erakusketa. Iruña 2009” izeneko Nafarroako Gobernuak jarritako diruari Nafarroako Gobernuak jarritako diruari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 31ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du, “Prestakuntzaren Europako Erakusketa. Iruña 2009” izeneko Nafarroako Gobernuak jarritako diruari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Iragan martxoaren 5ean eta 6an “Prestakuntzaren Europako Erakusketa. Iruña 2009” egin zen Baluarteen. Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Nazioarteko Garapenerako Zuzendaritza Nagusiak 36 metro koadroko stand bat jarri zuen erakusketan. Gastua, guztira, 6.390 eurokoa izan zen, eta “124001-13200-2269-146102 Azoka eta topaketetan parte hartzea” kontusailaren kargura ordaindu zen.

Standa Nafarroa 2009 bekak sustatzeko eta unibertsitateko ikasle nafarrak nazioarteratzeko ekimen bat izan zen; hartara, atzerriko unibertsitateek parte hartzeko guneak jarri ziren. Nafarroako Nazioarteko Planak bi jarduketa horiek jasotzen ditu.

Prestakuntzaren Europako Erakusketak iraun zuen bi egunetan zehar 256 pertsona hurbildu ziren standera.

Iruñean, 2009ko apirilaren 2an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

### **Toki Administrazioko kontseilariaren erantzuna**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du, “Prestakuntzaren Europako Erakusketa. Iruña 2009” izeneko Nafarroako Gobernuak jarritako diruari buruz (PES-086/09). Hona Toki Administrazioko kontseilariaren erantzuna

Iragan martxoaren 5ean eta 6an “Prestakuntzaren Europako Erakusketa. Iruña 2009” egin zen Baluarteen. Toki Administrazioko Departamentuak Kalitate eta Modernizaziorako Zerbitzuaren bitartez parte hartu zuen, 6 metro koadroko stand bat jarrita. Gastua, guztira, 2.141,36 eurokoa izan da, eta “21100210002262922100 Informazioa eta publizitatea” kontusailaren kargura ordaindu da.

Erakusketara Toki Administrazioko Departamentuak sustatutako 012 Infolocal zerbitzuaren informazio liburuxka eta kioskoa eraman ziren. Orain Nafarroako 127 udalek ere sustatzen dute (guztien artean 275.000 pertsona biltzen dute).

012 zerbitzuaren bitartez, gazteek aisialdiarekin edo ikastaroekin nahiz jarduerekin lotutako abisuak jaso ditzakete, haietan izena eman edo kontsultak egin, eta Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin batera SMS edo posta elektronikoko bidezko zerbitzu bat eskainiko zaie, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren eskaintzei buruzkoa, gazteek zenbait alorretan, kulturaren, ikastaroen edo aisialdiaren alorretan kasu, azaldutako interesak oinarri. Zerbitzu honen bidez lor dezaketen informazioaren artean dago atxikitako entitate guztiei buruzko informazio osotik hasi eta Nafarroako Gobernuaren gainontzeko entitateei nahiz erakunde publiko eta pribatuei buruzko informazioa arte. 012 zerbitzuak, besteak beste, call center gisa lan egiten du Nafarroako Enplegu Zerbitzuarentzat, familia eta berdintasun unitateentzat eta herritarrei informazioa emateko.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Toki Administrazioko kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday

**Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du, "Prestakuntzaren Europako Erakusketa. Iruña 2009" izenekorako Nafarroako Gobernuak jarritako diruari buruz (PES-086/09). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariaren erantzuna:

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuari dagokionez adierazi beharra dago Nafarroako Gazteriaren Institutuak, Nafarroako Gobernuaren menpeko erakunde autonomoa del aldetik, erakusketa horretan parte hartu zuela, 6 metro koadroko stand bat jarrita. Gastua, guztira, 1.612,40 eurokoa izan da, eta "960002961002269232102 Zeharkako ekimenak" kontusailaren kargura ordaindu da.

Jende ugari hurbildu zen standera erakusketak iraun zuen bitartean: 400 pertsona inguru. Nafarroako Gazteriaren Institutuak erakusketan parte hartzean bilatzen zuen helburua zen gazteei hurbiltzea Nafarroako Gobernu gazteriaren alorrean garatzen ari den politikak eta programak.

Iruñean, 2009ko apirilaren 14an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

**Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du, "Prestakuntzaren Europako Erakusketa. Iruña 2009" izenekorako Nafarroako Gobernuak jarritako diruari buruz (PES-086/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna

Iragan martxoaren 5ean eta 6an "Prestakuntzaren Europako Erakusketa. Iruña 2009" egin zen Baluarteen. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, Nafarroako Gobernuaren menpeko erakunde autonomoa del aldetik, erakusketa horretan parte hartu zuela, 12 metro koadroko stand bat jarrita. Gastua, guztira, 3.628,65 eurokoa izan da, eta "880002 84500 2276 241300 Enplegu eta Prestakuntza Behatokitako laguntza teknikoa" kontusailaren kargura ordaindu da.

Jende ugari hurbildu zen standera erakusketak iraun zuen bitartean: 400 pertsona inguru. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ondoko helburua zuen erakusketa honetan parte hartzean: gazteak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren politik aktiboaren interes bereziko taldea diren aldetik, lan merkatuaren ezaugarrietara eta, bereziki, Nafarroako Gobernuaren erakunde autonomo honen orientazio eta prestakuntza arloko aukeretara hurbiltzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

---

## **Galdera, jakiteko zer konponbide eman behar dien Nafarroako Gobernuak Internetik ez duten langileei eta jubilatuei, beren nominaren ordainagiria ezin izanen dutelako eskuratu.**

**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du jakiteko zer konponbide eman behar dien Nafarroako Gobernuak Internetik ez duten langileei eta jubilatuei, beren nominaren ordainagiria ezin izanen dutelako eskuratu.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 31ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda



**ERANTZUNA**

Ion Erro Armendariz jaunak galdera egin du, jakiteko zer konponbide eman behar dien Nafarroako Gobernuak Internetik ez duten langileei eta jubilatuei, beren nominaren ordainagiria ezin izanen dutelako eskuratu (PES-090). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. Jardunean diren langileei dagokienez, nomina Interneten bidez kontsultatu ahal izateko aukera eman da horiek guztiek dutelako, norberaren egoera pertsonala zein ere den, ordenagailu bat erabiltzeko aukera Foru Komunitateko Administrazioako bere lanpostuan, behar adinako periodikotasunez eta azkartasunez erabili ere, kontsulta hori egin ahal izateko.

Edozein modutan, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak eman beharreko jarraibideak eman dizkie Foru Komunitateko Administrazioako departamentu eta erakunde autonomo guztiei, lantoki eta unitate guztietan hartu beharreko neurriak eta abiarazi beharreko ekimenak hartu eta abiarazi daitezten, langile guztiek izate aldera ordenagailu bat zuzenean eta pertsonalki erabiltzeko aukera, nomina internet bidez kontsultatu ahal izateko, eta ordenagailu pertsonal bat ez duten langileen kasuan jakinarazi dakien nola egin kontsulta hori.

Nomina Internet bidez kontsultatzeko sistemak pribatutasuna ziurtatzeko adinako segurtasuna eskaintzen du, eta hala adierazi zaie, iragan otsai-

leko nominarekin igorritako idazkian, langile guztiei. Izan ere, aplikazioan sartzeko erabili beharreko identifikazio pertsonalari buruzko datuak (IFZa eta PINeko azken lau digituak) ez dira ez grabatzen ez inon gordetzen kontsulta bat egiten denean, kontsulta bukatutakoan Interneteko nabigatzailea ixtean. Horrenbestez, ez dago eragozpenik kontsulta hori beste langile baten ordenagailu pertsonalean egiteko.

2. Erretirodunen eta pentsiodunei dagokienez, Internet bidezko kontsulta hori edozein unetan egin dezaketela alde batera utzita, komunikazio bat igorriko zaie urtero urtarrilean etxera, eta hartan zehaztuko zaie zein izanen den urte horretako pentsioaren zenbatekoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean ezarritako igoera aplikatu ondotik. Kontuan hartu behar da ezen, kasuan kasuko igoera orokorra aplikatu ondotik, pentsioaren zenbatekoa ez dela urtean zehar aldatzen, eta, hortaz, komunikazio horren bidez jakinen dute zein izanen den urte osoko pentsioa.

Sistema hori da, eta hala jakinarazi zitzaizen ukitutako guztiei iragan otsaileko pentsioaren ordainagiriarekin igorritako idazkian, Gizarte Segurantzak pentsioa araubide horri jarraikiz jasotzen duten erretirodun eta pentsiodun guztiekin darabilena.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:  
Javier Caballero Martínez

**Galdera, Nafarroako Hondakinen Planari buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Hondakinen Planari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 31ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Hondakin Planari buruz (PES-91/09). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Hondakin Planaren prestaketaren nondik norakoei dagokienez adierazi beharra dago une honetan nahiko aurreratuta daudela plan horren lehen zirriborroa idazteko lanak. Lan

horiekin batera egiten ari dira hondakinei buruzko lan-talde teknikoak; halatan, hilean behin ari dira biltzen Nafarroako eragile sozialak, ekonomikoak eta ingurumen arloko eragile nagusiak, plana berrikusteko eztabaida soziala hastea helburu.

Plan hori idazteko lanari dagokionez adierazi beharra dago aurten, irailerako, egonen dela prest

zirriborria. Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko apirilaren 17an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

## **Galdera, ondoko plan estrategikoen egoerari buruzkoa: Abeltzaintza Sektorearen Plan Estrategikoa, Elikagaien Kalitatearen eta Segurtasunaren Plan Estrategikoa eta Jatorrizko Deiturarako Mahastizaintzaren eta Ardogintzaren Sektorearen Plan Estrategikoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du ondoko plan estrategikoen egoerari buruzkoa: Abeltzaintza Sektorearen Plan Estrategikoa, Elikagaien Kalitatearen eta Segurtasunaren Plan Estrategikoa eta Jatorrizko Deiturarako Mahastizaintzaren eta Ardogintzaren Sektorearen Plan Estrategikoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 31ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du ondoko plan estrategikoen egoerari buruzkoa: Abeltzaintza Sektorearen Plan Estrategikoa, Elikagaien Kalitatearen eta Segurtasunaren Plan Estrategikoa eta Jatorrizko Deiturarako Mahastizaintzaren eta Ardogintzaren Sektorearen Plan Estrategikoa (PES-092/09). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

#### **Abeltzaintza Sektorearen Plan Estrategikoa**

Abeltzaintzaren sektorerako plan estrategikoa prestatzeko lana bi fasetan egin da.

Alde batetik, azterketa sektorialeko eta azpi sektorialeko dokumentu bat egitea (2008ko apiri-

letik azarora bitarte), eta bertan Nafarroako abeltzaintzaren sektoreko egitura, ekoizpen ereduak, datu tekniko-ekonomikoak eta abar, sektore hori hobeki ezagutze aldera.

Eta, bestalde, analisiaren ekintza eta ondorio nagusiak biltzen dituen plan estrategikoa lantzea, abeltzaintzaren sektoreko azpi sektoreen AMIA diagnosis egitea eta jardueraren gako-elementuak identifikatzea. Aurreikusita dago plan estrategiko horren testua 2009ko laugarren hiruhilekorako izatea.

#### **Kalitate Plana eta Elikagaien Segurtasuna**

Otsailean eta martxoan zenbait bilera egin ziren Osasun Departamentuarekin eta Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuarekin 882. erregelamendua aplikatzeko. Bilera horietan, besteak beste, eztabaidatu zen Nafarroako Foru Komunitaterako elikagaien kalitateari eta segurtasunari buruzko plan baten norainokoaz eta metodologiak eta hura lantzeko prozeduraz.

Une horretatik aurrera, Nafarroako Foru Komunitateko elikagaien kalitateari eta segurtasunari buruzko planaren zirriborria egin zen. Zirriborro hori elikagaien kalitaterako eta segurtasunerako departamentuen arteko batzordean egin da, eta une hauetan ukitutako zuzendaritza nagusiak (Osasun Zuzendaritza Nagusia; Familiaren, Haurraren eta Kontsumoaren Zuzendaritza Nagusia; Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza Nagusia eta Landa Garapenerako Zuzendaritza Nagusia) hura aztertzen ari dira, Nafarroako Gobernuak plana onetsi aurretik haien ikus-onespena izateko. Nafarroako Gobernuak datorren hiruhilekoan onetsiko duela aurreikusi da.

### **Nafarroa Jatorrizko Deiturarako Mahasti-zaintzaren eta Ardogintzaren Plan Estrategikoa**

Plan hau egiteko, ezinbestekoa da ukitzen duen sektorea kontuan hartzea. Haren ordezkari goren, berriz, Nafarroako Jatorrizko Izendapenaren Kontseilu Arau-emailea da. Kontseilu hori nekazaritza-erakundeek eta ardandegiek osatzen dute. Departamentuak kontseilu arau-emaile horrekin izan duen aurretiko harremanetan, egokitzat jo da kontseilua bera izatea plan horren idazketa zuzentzeaz arduratuko dena, uneoro departamentuaren laguntza duela.

Kontseilu arau-emaileak agertu dituen asmoen arabera, eztabaida eta lehen urratsak 2009eko ekitaldian eginen dira, 2010ean plan estrategikoa eginda egon dadin.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

## **Galdera, herrilurren arloko auziei buruzko defentsa juridikoari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du herrilurren arloko auziei buruzko defentsa juridikoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du herrilurren arloko auziei buruzko defentsa juridikoari (PES-112/09). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Galderak bi auzi mahaigaineratzen ditu.

Lehenengoa: Lehena, ea zergatik Nafarroako Gobernuak zerbitzu juridikoek ez duten defentsarik egiten herrilurren arloan sortzen diren auzietan.

Erantzuna Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean bertan –aurrerantzean, TAFOL– nahiz Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onesten duen urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuan –aurrerantzean, TEOE– jasota dago.

TAFOLeko 97.2 artikuluan eta TEOEko 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, toki entitateen

ondasunak honela sailkatzen dira: jabari publikoak, herri ondasunak eta jabari pribatukoak edo ondarekoak.

Halatan, TAFOLeko 110.1 artikulua eta TEOEko 25.1 artikulua xedatzen dute Nafarroako toki entitateak euren ondareko ondasunak eta eskubiak kontserbatu, defendatu, lehengoratu eta hobetzeaz arduratu behar direla, eta beharturik daudela horien defentsarako beharrezkoak diren ekintzak gauzatzera.

Hortaz, toki entitateei dagokie lehenengo eta behin haien herri ondasunak defendatzea.

Soilik toki entitateek halakorik egiten ez dutenerako jasotzen dute TAFOLeko 110.3 artikulua eta TEOEko 27tik 29ra bitarteko artikuluek Foru Komunitateko Administrazioaren subrogazioa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa subrogatuz gero, TAFOLen eta TEOEn aurreikusitako prozedurari jarraikiz, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzua da auzitegi-tako defentsaz arduratu behar dena, eta Nafarroako Gobernuak ordainduko ditu kalte-galerak, baldin eta aurrera egiten ez badu. Subrogatu eta aurrera eginez gero, aldiz, gastuak kasuan kasuko toki entitateak ordaindu beharko ditu.

Bigarrena: Parlamentu-galderak mahaigaineratutako azken auzia da ea “zer irizpide erabiltzen dituen Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak kanpoko abokatuak kontratatzeko”.

Arestiko azalpenean argi gelditu denez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ez ditu "kanpoko abokatuak" kontratatzen. Kontratazio hori toki entitateek egiten dute, herri ondasunen titularrak diren aldetik eta horien defentsa euren ardura den aldetik. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuak ordezkatzeko du, subrogazioa gertatuz gero.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak badu kontusail bat, toki entitateek epaiketa batean herri ondasunen defentsa egiteko laguntzarako eskabidea aurkezten dutenerako.

Laguntza hori apirilaren 30eko 8/1985 Foru Legeko IV. titulua –Herri ondasunen defentsa–garatzeko eta aplikatzeko erregelamenduko VIII. kapituluko 31. artikulua jasotzen du. Erregelamendua abenduaren 22ko 386/1997 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen. Zenbatekoa egindako gastuaren ehuneko hirurogeita hamabostetik ehuneko ehunera bitartekoa da.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

## **Galdera, Cascanteko Juan Burgos enpresaren instalazioak izandakoetan enpresa bat jartzeko asmoari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Cascanteko Juan Burgos enpresaren instalazioak izandakoetan enpresa bat jartzeko asmoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 31ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du enpresa bat Cascanteko Juan Burgos enpresaren instalazioetan kokatzeari buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Egindako galderei erantzun aurretik, aztergai dugun kasuan interesa duen datu bat eman behar

dugu. Juan Burgos enpresak une honetan zordunen konkurtso batean dago, eta Administrazio Judiziala izan da konkurtsoarako administratzaileak izendatu dituen; horiexek dira, izan ere, sozietate horren aktiboak eta pasiboak kudeatzeko ardura dutenak. Juan Burgos enpresarekin lotura duen edozein neurri edo jardueraren aurretik, lehenbizi konkurtsoko administratzaile horien baimena behar da.

Gaur egun, departamentu honek ofizialki ez du jakin konkurtsoko administratzaileek galderan aipatutakoaren ildoko erabakirik hartu duten.

Departamentuak, Juan Burgos enpresaren gaia dela eta, lanean jarraitzen du, zorrotasunez eta erantzukizunez –eta batez ere zuzentzeaz– Juan Burgos enpresaren instalazioetan arrazoizko epe batean beste jarduera industrial bat jar dadin, herriarentzako jarduera ekonomikoa eta enplegua sorraraziko dituen.

Iruñean, 2009ko apirilaren 21ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

## **Galdera, jakiteko noiz aldatuko duen Nafarroako Gobernuak Nekazaritza Finantzazioari buruzko Foru Legea.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko noiz aldatuko duen Nafarroako Gobernuak Nekazaritza Finantzazioari buruzko Foru Legea.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 31ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak Nekazaritza Finantzazioari buruzko Foru Legea noiz aldatuko duen (PES-092/94). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Legegintzaldi honetarako konpromisoan, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Parlamentuan legegintzaldirako programa azaltzeko eginiko agerraldian azaldutakoan, adierazi genuen komenigarria zela legegintzaldi honetan egungo lege-esparrua aldatzea.

Nekazaritza Finantzazioari buruzko lege-esparruaren aldaketa legegintzaldian zehar eten gabe egiten joan gara. Hori zor zaio, nagusiki, Europar Batasunean nekazaritzaren finantzazioaren arloko arau-esparruan egin den aldaketari. Aldaketa horrek eragina izan du bai landa garapenerako laguntzetan (horretarako sortu eta onetsi zen Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Programa), bai Estatuaren laguntzetan, European zuzentarau berriak zian baitira 2007-2013 urteetarako nekazaritzaren eta basogintzaren sektoreetarako, bai eta haiek garatzeko erregelamenduetan ere. Halaber, Estatuak erregio xedeeetarako ematen dituen laguntzetan ere eragina izan du, 2007-2013 urteetarako zuzentarau berriak onetsi baitira.

Horrek guztiak berarekin ekarri du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak nekazaritza finantziatorako arau-esparruaren zati handi bat aldatzea eta aurreko esparrua indarga-

betzea edo aldatzea, bai eta, kasu gehienetan, arau berriak ematea ere, Nafarroan nekazaritza finantziatorako esparru berria ezartzeko foru aginduen bitartez. Esparru berri horri, neurri handi batean 2007an hasi zena eta 2013ra arte ezarriko dena, urteko deialdien bitartez, aldaketa batzuk egin zaizkio, kudeaketa hobetzeko eta laguntzen izapidetzea errazteko.

Horrenbestez, garrantzitsuena da arau-esparru berri bat ezarri dela foru aginduen bitartez, horiek tresna arinagoa baitira.

Legegintzaldi honen hasieratik, ondoko jarduerak egin dira, nekazaritza finantziatorako esparru bat ezartzeko, aurreko etapa gaindituta. Honakoak dira eman diren arau eta ekintzak:

– 145/2009 Foru Agindua, martxoaren 25ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, abeltzaintzako toki azpiegituren hobekuntzarako laguntzak emateko arauak ezartzen dituena 2009-2013 aldirako, 2009ko deialdia onesten duena eta Cortesko Udalarri zuzenean 100.000 euroko diru-laguntza ematen diona herrian artegiak egiteko.

– 77/2009 Foru Agindua, otsailaren 26koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, otsailaren 12ko 36/2007 Foru Agindua aldatzen duena. Foru agindu horren bitartez galtzeko zorian dauden arraza autoktonoak babesteko eta sustatzeko laguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra ezarri zen.

– 75/2009 Foru Agindua, otsailaren 26koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, "Nekazaritza ustiategiak modernizatze" eta "Nekazari gazteak beren gain hasteko" laguntzei buruzko arauak ezartzen dituena, Landa Garapenerako 2007-2013 Programaren barruan.

– 50/2009 Foru Agindua, otsailaren 9koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Estepa-eremuetarako Nekazaritzako Ingurumenerako Laguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra ezartzen duena.

– 666/2008 Foru Agindua, abenduaren 12koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak apirilaren 3an emandako 95/2007 Foru Agindua aldatzen duena. Agindu horren bidez nekazaritzako produktuen balio erantsiaren

gehikuntzarako laguntzei buruzko arauak ezarri ziren, Landa Garapenerako 2007-2013 urteetarako Programaren barruan.

– 459/2008 Foru Agindua, irailaren 5ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak otsailaren 12an eman 35/2007 Foru Agindua aldatzen duena. Horren bidez, abeltzaintza ekologikorako laguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra ezarri zen.

– 450/2008 Foru Agindua, abuztuaren 21ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak apirilaren 3an emandako 95/2007 Foru Agindua aldatzen duena. Agindu haren bidez nekazaritzako produktuen balio erantsiaren gehikuntzarako laguntzei buruzko arauak ezarri ziren, Landa Garapenerako 2007-2013 urteetarako Programaren barruan.

– 321/2008 Foru Agindua, ekainaren 19koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren ekainaren 12ko 320/2007 Foru Agindua aldatzen duena. Foru agindu horren bidez, Nafarroako Landa Garapenerako 2007-2013 programaren esparruan nekazaritzako lurren lehenengo oihaneztapenerako laguntzen araubidea ezarri zen.

– 311/2008 Foru Agindua, ekainaren 17koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak emaniko ekainaren 12ko 319/2007 Foru Agindua aldatzen duena. Foru agindu horren bidez, eragile eta elkarte pribatuek sustatutako oihaneko jardueratarako laguntzen araubidea ezarri zen 2007-2013ko aldirako.

– 322/2008 Foru Agindua, ekainaren 19koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana. Honen bidez aldatu egiten da ekainaren 12ko 317/2007 Foru Agindua, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak emana, Landa Garapeneko 2007-2013 urteetako Programaren barruan toki entitateek sustatzen dituzten oihaneko jardueratarako laguntza araubidea ezartzen duena.

– 286/2008 Foru Agindua, ekainaren 6koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Tokiko Ekintza Taldeak eta horien garatzeko estrategiak hautatzeko deialdia onesten duena, Landa Garapenerako 2007-2013 urteetarako Programako 4. ardatzaren (LEADER) barnean.

– 188/2008 Foru Agindua, apirilaren 25ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilari-

ak emana, nekazaritza jardueratik behar baino lehenago erretiratzeko laguntzen errealizazioa finkatzen duena.

– 197/2008 Foru Agindua, maiatzaren 2koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, 2008-2013 aldian abeltzaintzako toki azpiegituren hobekuntzarako laguntzak emateko arauak ezarri eta 2008ko deialdia onesten duena.

– 139/2008 Foru Agindua, apirilaren 8koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, "Nekazaritzako ustiategiak modernizatzeari" izeneko neurrian onetsitako laguntzen ondoriozko konpromisoez gain konpromiso gehiago eta handiagoak sinatzen dituzten elkarteei laguntzak emateko arauak ezartzen dituena, 135/2007 Foru Aginduaren bidez egindako deialdiari jarraikiz, Nafarroako Landa Garapenerako 2007-2013 urteetarako Planaren esparruan.

– 168/2008 Foru Agindua, apirilaren 21ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Kontseilariak emana. Honen bidez, Nafarroako Nekazaritza Garatzeko 2007-2013 Programaren barruan nekazaritzaz besteko jardueretara dibertsifikatzeko eta nekazaritzako elikagaien arloko mikroenpresak sortu eta garatzeko laguntzak arautzeko arauak ezartzen dira eta 2008. urterako deialdia onartzen da.

– 125/2008 Foru Agindua, apirilaren 2koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak otsailaren 12an emandako 33/2007 Foru Agindua aldatzen duena. 33/2007 Foru agindu horren bidez nekazaritza ekologikoari laguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra ezarri zen.

– 91/2008 Foru Agindua, martxoaren 5ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak emandako otsailaren 12ko 36/2007 Foru Agindua aldatzen duena. Haren bidez galtzeko zorian dauden arraza autoktonoak babesteko eta sustatzeko laguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra ezarri zen.

– 46/2008 Foru Agindua, otsailaren 5ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, nekazaritza ekologikoari laguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra ezartzen duena.

– 23/2008 Foru Agindua, urtarrilaren 25ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak otsailaren 12an eman 32/2007 Foru Agindua aldatzen duena. Horren bidez, Nafarroako

mendialderako eta eskualde behartsuetarako kalte-ordainak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra erregulatu zen.

– 553/2007 Foru Agindua, abenduaren 14koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Tokiko Ekintza Taldeak hautatzeko deialdiko arauak eta haiek garatzeko jokabideak ezartzen dituena, Landa Garapenerako 2007-2013 urteetarako Programako LEADER 4. ardatzaren barruan.

– 484/2007 Foru Agindua, azaroaren 8koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, zeinak aldatzen baitu martxoaren 27ko 83/2007 Foru Agindua, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak emana, nekazaritza ustiategiak modernizatzeko eta nekazari gazteak beren gain hasteko laguntzei buruzko arauak ezartzen dituena, Landa Garapenerako 2007-2013 urteetarako Programaren barruan.

– 273/2007 Foru Agindua, abuztuaren 20koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak apirilaren 3an emandako 95/2007 Foru Agindua aldatzen duena. Agindu haren bidez nekazaritzako produktuen balio erantsiaren gehikuntzarako laguntzei buruzko arauak ezarri ziren, Landa Garapenerako 2007-2013 urteetarako Programaren barruan.

– 63/2009 Foru Agindua, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurako kontseilariak otsailaren 16an emana, ondoko laguntza hauetarako eskaera bakarra aurkezteko arauak ematen dituena 2009ko kanpainarako: ordainketa bakarraren araubideko laguntzak, nekazaritzako zenbait produkturi azaleragatik ordaindu beharrekoak, abeltzaintzako primak, Nafarroako eskualdeetako kalte-ordainak eta nekazaritza eta ingurumen arloetako laguntzak; gainera, ordainketa bakarraren eskubideak lagatzeko komunikazioak eta erreserba nazionalerako eskubideen eskaerak aurkezteko arauak ere eman ziren.

– 206/2008 Foru Agindua, maiatzaren 13koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, otsailaren 1eko 38/2008 Foru Agindua aldatzen duena. Foru agindu horren bidez, ondoko laguntza hauetarako eskaera bakarra aurkezteko arauak eman ziren 2008ko kanpainarako: ordainketa bakarraren araubideko laguntzak, nekazaritzako zenbait produkturi azaleragatik ordaindu beharrekoak, abeltzaintzako primak, Nafarroako eskualdeetako kalte-ordainak eta nekazaritza eta ingurumen arloetako laguntzak; gainera, ordainketa bakarraren eskubideak lagatzeko komunikazio-

ak eta erreserba nazionalerako eskubideen eskaerak aurkezteko arauak ere eman ziren.

– 190/2008 Foru Agindua, apirilaren 29koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, mahastia berregituratu eta moldatzeko planetarako laguntzak onesten dituena, 2008-2009 kanpainarako.

– 194/2008 Foru Agindua, apirilaren 30ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, 2008-2010 hirurterako Erlezaintzari Laguntzeko Neurrien Programa Nazionalaren barruan erlezaintzako produktuen ekoizpena eta merkaturatzea hobetzeko jarduerak sustatzeko laguntzen arauak eta 2008ko deialdia onesten dituena.

– 123/2008 Foru Agindua, apirilaren 2koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, laguntza eskaera bakarraren deialdiari buruzko otsailaren 1eko 38/2008 Foru Agindua aldatzen duena, tomate eraldatuaren laguntza elkartua sartzeko eta zenbait fruta eta barazki ekoizten dituzten nekazariak ordainketa bakarraren araubidean onartzeko.

– 38/2008 Foru Agindua, otsailaren 1ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, 2008ko kanpainako ordainketa bakarrenko erregimenean sartzeko eskaera bakarra onesten duena ondokoetarako: nekazaritzako zenbait produkturi azaleragatik ordaindu beharrekoak, abeltzaintzako primak, Nafarroako eskualdeen kalte-ordainak, nekazaritza eta ingurumen arloetako laguntzak, bai eta ordainketa bakarrenko eskubideak lagatzeko komunikazioak aurkezteko eta erreserba nazionalerako eskubideak eskatzeko arauak ere.

– 497/2007 Foru Agindua, azaroaren 15ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, 2007-08 kanpainarako eraldaketarako tomatea ekoizten duten zenbait nekazariri dirulaguntzak emateko arauak ezartzen dituena.

– 74/2009 Foru Agindua, otsailaren 23koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Europako Itunaren I. eranskinean jasota dauden eta kalitate deituen babesa duten nekazaritzako elikagaien publizitaterako laguntzak emateko arauak ezarri eta 2009ko deialdia onesten duena.

– 70/2009 Foru Agindua, otsailaren 18koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana. Honen bidez, ingurumena babestu eta hobetzeko eta abeltegietako higiena edo abereen ongizatea hobetzeko kostu osagarriak sortzen dituzten inbertsioetarako laguntzak emateko arau-

ak ezarri eta 2009rako laguntzen deialdia onesten da.

– 702/2008 Foru Agindua, abenduaren 30ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, kooperatibak bateratzeko esparruan, elkarteen araubidea duten nekazaritzako ustiategiak instalazioz eta ekipamenduz hornitzeko inbertsioetarako laguntzak emateko 2009ko deialdia onesten duena.

– 12/2009 Foru Agindua, urtarrilaren 14koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak azaroaren 24an emandako 605/2008 Foru Agindua aldatzen duena. Agindu horren bidez, inbertsioak finantzatzeko kreditu eragiketei abalorde moduko laguntzak emateko araubidea ezarri zen, Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurriei buruzko urriaren 30eko 14/2008 Foru Legearen esparruan.

– 10/2009 Foru Agindua, urtarrilaren 12koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, nekazaritzako kooperatibei nekazaritzako makinerian inbertsioak egiteko laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri zituen maiatzaren 28ko 264/2008 Foru Agindua aldatu eta 2009ko deialdia onesten duena.

– 28/2009 Foru Agindua, urtarrilaren 23koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurako kontseilariaren apirilaren 24ko 167/2008 Foru Agindua aldatu eta 2009. urteko deialdia onesten duena. Agindu haren bidez kalitatezko zeinu bereiziekiko nekazaritzako elikagai babestuak sustatzeko elkarreak eta kontseilu arau-emaiak sortu eta garatzeko laguntzak emateko arauak ezarri ziren.

– 667/2008 Foru Agindua, abenduaren 15ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak uztailaren 29an emandako 412/2008 Foru Agindua aldatzen duena. Foru agindu horren bidez abeltzaintzako produkzio sistema iraunkorak sustatzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onetsi ziren.

– 605/2008 Foru Agindua, azaroaren 24koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, inbertsioak finantzatzeko kreditu-eragiketei abalorde moduko laguntzak emateko araubidea ezartzen duena, Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurriei buruzko urriaren 30eko 14/2008 Foru Legearen esparruan.

– 576/2008 Foru Agindua, azaroaren 4koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilari-

ak emana, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak azaroaren 13an emandako 489/2007 Foru Aginduan ezarritako laguntzak osatzeko laguntzak ezartzen dituena. Foru agindu horren bidez Nafarroako Foru Komunitateko abeltzaintzako ustiategiari "de minimis" araubideko laguntzak emateko 2007. urteko aparteko deialdia onetsi eta haren oinarri arautzaileak ezarri ziren.

– 594/2008 Foru Agindua, azaroaren 11koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko zerri eta untxi ustiategiaren titularrek gauzaturiko maileguen interesen hobarietarako "de minimis" araubideko laguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak onesten dituena, 2008rako.

– 538/2008 Foru Agindua, urriaren 20koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, kontseilari horrek berak ekainaren 30ean emandako 357/2008 Foru Aginduan ezarritako neurriak baliogabetzen dituena.

– 532/2008 Foru Agindua, urriaren 13koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, ustiapenerako oinarritzako eremuak eratzeko lurra erosteko laguntza eskaerak aurkezteko epea ixten duena.

– 501/2008 Foru Agindua, urriaren 6koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, akuikultura sektorean inbertitzeko eta arrantzako produktuak eraldatu eta merkaturatzeko laguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dituena.

– 437/2008 Foru Agindua, abuztuaren 12koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana. Haren bidez osasun defentsarako elkarreendako diru-laguntzak emateko deialdia onesten da 2008. urtean behi, ardi, behor eta untxi aziendaren gaixotasunak prebenitzeko, haien aurka borrokatzeko eta desagerrarazteko osasun programak egiteko.

– 412/2008 Foru Agindua, uztailaren 29koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, abeltzaintzako produkzio sistema iraunkorak sustatzeko laguntzak emateko arauak eta deialdia onesten dituena.

– 81/2008 Foru Dekretua, ekainaren 30ekoa, zati batean indargabetzen duena Nafarroako Foru Komunitatearen nekazaritza sektorearentzako estatuko laguntzen Erregelamendua, abenduaren 30eko 280/2002 Foru Dekretuak onetsitakoa.

– 341/2008 Foru Agindua, ekainaren 24koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, apirilaren 21eko 166/2008 Foru Agindua aldatzen duena. Foru agindu horrek Nekazaritzako Aseguru Konbinatuen Planeko



nekazaritzako zenbait aseguru sinatzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten ditu, 2008. urterako.

– 355/2008 Foru Agindua, ekainaren 27koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, enpresak kudeatzeko planetarako nekazari kooperatibei laguntzak emateko arauak ezarri eta 2008ko deialdia onesten duena.

– 337/2008 Foru Agindua, ekainaren 23koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren maiatzaren 21eko 154/2007 Foru Agindua aldatu eta 2008. urteko deialdia onesten duena. Agindu haren bidez Nafarroako azien hazleen elkarteei laguntzak emateko arauak ezarri ziren.

– 264/2008 Foru Agindua, maiatzaren 28koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, nekazaritzako kooperatibei nekazaritzako makinerian inbertsioak egiteko laguntzak emateko arauak ezarri eta 2008ko deialdia onesten duena.

– 169/2008 Foru Agindua, apirilaren 21ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, elkarteei nekazaritzako ustiatzietan trazabilitate sistemak ezartzeko proiektu kolektibotarako laguntzak nola eman arautu, eta 2008ko deialdia onesten duena.

– 201/2008 Foru Agindua, maiatzaren 9koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana. Honen bidez nekazaritza sektorean "de minimis" aruari lotutako laguntzen aldi baterako araubidea ezartzen da, Nekazaritzako Aseguru Konbinatuen Urteko Plan indardunetan sartuak ez diren berotegien egitura eta instalazioetan izandako kalteetarako, 2008ko ekitaldian entitate pribatuekin sinatutako aseguru kontratatzeako diru-laguntzak emateko.

– 167/2008 Foru Agindua, apirilaren 21ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, kalitate bereziaren ezaugarriez babestutako nekazaritzako elikagaien entitate sustatzaileak eta kontseilu arautzaileak indartu, sortu eta garatzeko laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia onesten duena 2008. urterako.

136/2008 Foru Agindua, apirilaren 7koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, beren indarrez dabilzan uzta biltzeko makinen eta traktoreen Nafarroako parkea berritzeko laguntzen deialdia onesten duena, 2008. urterako.

– 183/2008 Foru Agindua, apirilaren 24koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilari-

ak emana, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren maiatzaren 14ko 146/2007 Foru Agindua aldatzen duena. Agindu haren bidez nekazaritzako elikagaien sektoreko produktuak eraldatu eta merkaturatzeko Nafarroako Foru Komunitateko estatu-laguntzei buruzko araudia ezarri zen, lurralde-xedea duten estatu-laguntzen 2007-2013 bitarteko mapan sarturik dauden Nafarroako eskualdeetarako.

– 135/2008 Foru Agindua, apirilaren 7koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, abeltzaintzako saneamendu kanpainetan azien mugitzeko debekuaren edo osasun arrazoiengatik ustiatzietan hustu beharrean ondorioz abeltzaintzako ustiatzietan laguntzak emateko arauak ezartzen dituen, eta 2008rako deialdia onesten duena.

– 166/2008 Foru Agindua, apirilaren 21ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nekazaritzako Aseguru Konbinatuen Planeko nekazaritzako zenbait aseguru izenpetzeko diru-laguntzen arauak eta deialdia onesten dituen, 2008. urterako.

– 172/2008 Foru Agindua, apirilaren 22koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean tomatea belzten duen birusa edo "Tomato Spotted Wilt Virus (TSWV)" badela adierazi, organismo horren aurkako borroka onura publikoa dela aitortu eta horren kontrolerako neurriak hartzen dituen.

– 141/2008 Foru Agindua, apirilaren 8koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren maiatzaren 14ko 143/2007 Foru Agindua aldatu eta 2008. urteko deialdia onesten duena. Agindu haren bidez kalitatezko nekazaritza produktuen merkaturatzea hobetzeko sustapen ekimenetarako laguntzak emateko arauak ezarri ziren.

– 138/2008 Foru Agindua, apirilaren 7koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, azaroaren 27ko 530/2007 Foru Agindua aldatu eta 2008rako deialdia onesten duena. Agindu haren bidez elkarteen araubidea duten nekazaritzako ustiatzietan informatikako ekipamenduan eta material osagarrian inbertsioak egiteko laguntzak emateko arauak ezarri ziren.

– 76/2008 Foru Agindua, otsailaren 27koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, kooperatibak integratzeko esparruan, nekazaritzako elikagaien kalitatea sustatzeko eta laguntza teknikoko planetarako, Nafarroako nekazaritza kooperatibei laguntzak emateko 2008ko deialdia onesten duena.

- 74/2008 Foru Agindua, otsailaren 27koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, kooperatibak elkargantzeko esparruan, elkarleen araubidea duten nekazaritzako ustiategiei instalazioez eta ekipamenduez hornitzeko inbertsioetarako laguntzak emateko deialdia onesten duena.
- 75/2008 Foru Agindua, otsailaren 27koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, elkarleen araubidea duten entitateek nekazaritzako ustiategietan makineria erosteko egiten dituzten inbertsioetarako laguntzen deialdia onesten duena.
- 77/2008 Foru Agindua, otsailaren 27koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, kooperatibak elkargantzeko prozesuak nekazaritza kooperatibak berregituratzeko esparruan bultzatzeko 2008ko deialdia onesten duena.
- 81/2008 Foru Agindua, otsailaren 27koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren maiatzaren 14ko 147/2007 Foru Aginduaren babesean laguntzak jasotzeko eskararak aurkezteko epea zehazten duena eta hura 2008ko ekainaren 30etik aurrera indargabetzeko agintzen duena.
- 252/2007 Foru Dekretua, abenduaren 10ekoa, uholdeengatik eman beharreko laguntzen kopuruak aldatzen dituena. Apirilaren 23ko 36/2007 Foru Dekretuan eta dekretu hori aldatu zuen azaroaren 19ko 246/2007 Foru Dekretuan ezarri ziren aipatutako kopuruak.
- 530/2007 Foru Agindua, azaroaren 27koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, elkarleen araubidea duten nekazaritzako ustiategiei informatikako ekipamenduan eta material osagarrian inbertsioak egiteko laguntzak emateko arauak ezarri eta 2007ko dirulaguntza deialdia onesten duena.
- 540/2007 Foru Agindua, abenduaren 11koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana. Haren bidez osasun defentsarako elkarleendako dirulaguntzak emateko deialdia onesten da 2007. urtean behi, ardi eta behor azidaren gaixotasunak prebenitzeko, haien aurka borrokatzeko eta desagerrarazteko osasun programak egiteko xedez.
- 246/2007 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, uholdeengatik emateko laguntzetako kopuruak aldatzen dituena. Apirilaren 23ko 36/2007 Foru Dekretuan eta maiatzaren 21eko 46/2007 Foru Dekretuan ezarri ziren aipatutako kopuruak.
- 491/2007 Foru Agindua, azaroaren 13koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, bere indarrez dabiltzan Nafarroako traktore eta uzta biltzeko makinaren parkea berritzeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta 2007ko dirulaguntza deialdia onesten duena.
- 489/2007 Foru Agindua, azaroaren 13koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariarena, 2007. urterako "de minimis" araubidearen menpeko Nafarroako Foru Komunitateko abeltzaintzako ustiategiei dirulaguntzak emateko aparteko deialdia onetsi eta arauak ezartzen dituena.
- 478/2007 Foru Agindua, azaroaren 2koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, teknikari kualifikatuen kontratazioa sustatzeko "de minimis" laguntzak emateko arauak ezartzen dituena, kooperatiben berregituraketaren esparruan, eta 2007ko deialdia onesten duena.
- 477/2007 Foru Agindua, azaroaren 2koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, kooperatibak elkargantzeko prozesuak nekazaritza kooperatibak berregituratzeko esparruan bultzatzeko laguntzak ezarri eta 2007ko deialdia onesten duena.
- 462/2007 Foru Agindua, urriaren 23koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, kooperatibak integratzeko esparruan, nekazaritzako elikagaien kalitatea sustatzeko eta laguntza teknikoko planetarako, Nafarroako kooperatibei laguntzak emateko arauak ezartzen dituena.
- 438/2007 Foru Agindua, urriaren 16koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, nekazaritzako elikagaien kalitatea sustatzeko elkarleak sortu eta garatzeko laguntzak emateko arauak ezarri eta 2007ko deialdia onesten duena.
- 348/2007 Foru Agindua, irailaren 20koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriaren trazabilitateari laguntzak emateko arauak ezarri eta 2007ko deialdia onesten duena.
- 93/2009 Foru Agindua, martxoaren 6koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana. Honen bidez nekazaritza sektorean "de minimis" arauari lotutako laguntzen aldi baterako araubidea ezartzen da, Nekazaritzako Aseguru Konbinatuen Urteko Plan indardunean sartuak ez diren berotegien egitura eta instalazioetan izandako kalteetarako, 2009ko ekitaldian entitate pribatuekin izenpetutako aseguruia kontratatuzeko dirulaguntzak emateko.

– 137/2009 Foru Agindua, martxoaren 23koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nafarroako nekazaritza kooperatibei laguntzak emateko 2009ko deialdia onesten duena, nekazaritzako elikagaien kalitateko produktuak sustatzeko eta laguntza teknikoko planetarako, kooperatiben integrazioaren esparruan.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko apirilaren 23an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

## **Galdera, jakiteko zer gastu ordaindu dituen Nafarroako Gobernuak nahiz beste edozein fundazio edo enpresa publikok Tuterako katedraleko obretan.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer gastu ordaindu dituen Nafarroako Gobernuak nahiz beste edozein fundazio edo enpresa publikok Tuterako katedraleko obretan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du, jakiteko zer gastu ordaindu dituen Nafarroako Gobernuak nahiz beste edozein fundazio edo enpresa publikok Tuterako katedraleko obretan (PES 106). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren erantzuna:

Obra horietako gastu osoa 8.512.332,96 eurokoa izan da, eta Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kutxa Fundazioak eta Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak ordaindu dituzte.

Faseak:	
2002 Zoladura desmuntatzea eta indusketa	1.399.444,57 €
2002-2003 Espiritu Santuaren kapera	1.239.667,73 €
2002-2003 Espiritu Santuaren kaperako aldamioak	21.594,43 €
2003 Katedralaren ekialdea	1.788.956,18 €
2005-2006 Esku-hartzea	1.521.812,29 €
2005-2006 Esku-hartzea	1.602.285,84 €
2006 Esku-hartzea	938.571,92 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.512.332,96 €</b>

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko apirilaren 23an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, jakiteko zergatik ez den errespetatzen euskarazko testuen tamaina eremu euskalduneko errepideetako turismo seinaleetan.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko zergatik ez den errespetatzen euskarazko testuen tamaina eremu euskalduneko errepideetako turismo seinaleetan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du, jakiteko ea zergatik ez den euskarazko testuaren tamaina erres-

petatzen eremu euskalduneko errepideetan paraturik dauden turismoari buruzko afixetan –Reyno de Navarra Tierra de Diversidad-Nafarroako Erresuma Nafarroa Lur Anitza– (PES-109). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismoko kontseilariaren erantzuna:

Aipatu afixak egin dira Nafarroako Gobernuak 2006ko azaroaren 25ean euskararen erabileraren alorreko zenbait neurriri eta bideko seinaleei buruz hartutako Erabakian ezarritakoari jarraikiz.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko apirilaren 24an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## Galdera, eskola garraioa erabiltzen duten ikasleei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du eskola garraioa erabiltzen duten ikasleei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 31ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du 2009ko martxoaren 23an. Hona erantzuna:

1. Zenbat ikaslek erabiltzen dute eskola-garraioa eskolara joateko?

Hezkuntza Departamentua eskola-garraioa antolatu, kudeatu eta finantzatzen die Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak egiten dituzten ikasleei, bai eta Hezkuntza Bereziko nahiz Lanbide Hastapen Bereziko zentroetan eta unitate berriazkoetan ikasten dutenei ere, baldin eta Nafarroako Gobernuaren menpeko ikastetxe publikoetan ikasten badute.

Ikasle publikoetako 10.732 ikasle garraiatzen dira. I. eranskinean (autobusez garraiatutako ikasleak) eta II. eranskinean (9 eserlekuetik beherako ibilgailuetan garraiatutako ikasleak) dago ikastetxe publikoen zerrenda.

Ikasle pribatu itunduetako 5.139 ikasle garraiatzen dira. III. eranskinean dago ikastetxe pribatu itunduen zerrenda.

2. Eskola-garraioko zenbat beka ematen zaizkie ikastetxe itunduetara joaten diren ikasleei?

Hezkuntza Departamentuak, irakaskuntza ertainerako eta goi ikasketetarako beken deialdia

orokorraren bidez, garraio-laguntzak ematen dizkie irakaskuntza ertaineko ikasleei, baldin eta deialdiko baldintza ekonomikoak eta akademikoak betetzen badituzte.

IV. eranskinean ageri da 2008/2009ko deialdian irakaskuntza ertainetako ikasleei emandako garraio-beken zerrenda (oraindik ez da behin betikoz ebatzi).

3. Zenbat ikaslek jasotzen dute eskola-garraio-rako laguntza ikastetxe publiko batera joateko?

Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, Lehen Hezkuntzan, Hezkuntza Berezian: 434 ikasle.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan: 403 ikasle.

Horietatik zenbatek bidaiatu behar dute ezinbestez?

Hezkuntza Departamentuak antolatutako eskola-garraioaren onuradun izateko, 69/1995 eta 150/1996 foru dekretuen bidez ezarritako eskolaren araberako dagokien ikastetxean egon behar dute matrikulatuta ikasleek, eta ikastetxeak ezin du egon bizi diren herrian.

4. Eskolara joateko garraioa erabiltzen duten ikastetxe publikoetako eta ikastetxe itunduetako ikasleen ehunekoa.

Irakaskuntza publikoko ikasle garraiatuak (banakako laguntzak barne): 11.569; alegia, % 69,24.

Irakaskuntza itunduko ikasle garraiatuak (Hezkuntza Departamentuak ez du ez antolatzen ez finantzatzen garraio hau): 5.139; alegia, % 30,76.

Iruñean, 2009ko apirilaren 29an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude 7-08/PES-00088 espediente-an, ondoko web helbidean hain zuzen:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

## **Galdera, Nafarroan AHTaren obrak egin ahal izateko finantzaketa dela-eta Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuko lehendakariari igorritako gutunetan ezarritako helburuei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroan AHTaren obrak egin ahal izateko finantzaketa dela-eta Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuko lehendakariari igorritako gutunetan ezarritako helburuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 24ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroan AHTaren obrak egin ahal izateko finantzaketa dela-eta Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuko lehendakariari igorritako gutunetan ezarritako helburuei buruz. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuko lehendakariak, beren eskurantzez baliatuta eta Nafarroan Abiadu-

ra Handiko Trenaren eraikuntzarako behar diren akordioak abian jar daitezzen, berriki bi idazki igorri dizkio Espainiako Gobernuko lehendakari José Luis Rodríguez Zapaterori. Lehendabizikoan proposatzen dio Sustapen Ministerioak baimena ematea Nafarroari hasiera batean Nafarroako Gobernuari esleitutako tartea eraikitzeke proiektua kontratatzeke, hau da, Castejón-Iruñerria tartea; bigarren idazkian, berriz, finantziatorako formula berri bat proposatzen dio; haren bidez, Nafarroak bi edo hiru urtez geroratuko du Nafarroako Gobernuak eraikitako AHTaren obren ekarpenaren deskontua.

2.- Bi idazki horiek eta goreneko mailan eginitako kudeaketa politikoei aukera eman dute akordioa desblokeatzeko eta apirilaren 24ko egunarekin Estatuaren eta Nafarroaren arteko Protokolo Orokorreko testu bat ezartzea, datozen egunetan sinatuko dena. Testu horretan, hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuko lehendakariak eginiko bi proposamenak artikulatzen dira, alegia, eraikuntza-proiektuak berehala hastea eta ekarpenaren deskontua bi urtetan geroratzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 28an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

## **Galdera, jakiteko zer formula zehatz erabili den Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuan dirusarreraren atal bakoitzean.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko zer formula zehatz erabili den Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuan dirusarreraren atal bakoitzean.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 3ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du 2009rako aurrekontu orokorren proiektuko dirusarreraren atala prestatzeko premisa, adierazle, datu eta aurreikuspenei buruz –PES-96–. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua egi-terakoan, dirusarreraren konfigurazioa gutxi gorabeherakoa da, ez baitago formula zehatzik horiek kalkulatzeko. Politikako Zuzendaritza Nagusiko eta Nafarroako Zerga Ogasuneko zerbitzu teknikoek eginiko zenbatespenak eta simulazioak izan ohi dira, zeinak oinarritzen baitira behin-behineko taula makroekonomikoetan eta une bakoitzean

kontabilizatutako dirubilketan eta aurreko urteetan izandako dirubilketetan.

Bestalde, Nafarroako Parlamentuak 2009rako onetsitako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko txostenean, behar den informazio zehatza jasozten da ekitaldirako dirusarreraren estimazioei eta kalkuluari buruz.

Aurrekoa gorabehera, kalkulaten diren dirusarrerak fiskalak eta aurreko urtekoekiko alderaketa eskaintzen dizuegu, erantsita datorren taulan. Taula hori 2008ko irailean egingo da.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

## **Galdera, Leader Ardatzeko kofinantzetako diruaren erabilerari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Leader Ardatzeko kofinantzetako diruaren erabilerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 3ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako 2008ko aurrekontu orokorretako dirusarreraren aurrekontu bateratuan sartuta dagoen Leader-PDR Ardatzeko (2007-2013) kofinantzetako diruaren erabilerari buruz (PES-98). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Landa Garapeneko Programako 4. ardatzaren (Leader) exekuziorako tokiko ekintzako taldeak hautatzeko prozedura gauzatu da. Hautapen prozedura horretarako deialdia abenduaren 14ko 553/2007 Foru Aginduaren bidez egin zen. Ekainaren 6ko 286/2008 Foru Aginduaren bitartez,

Cederna-Garalur, TEDER Elkartea, EDER Partzuzergo eta Nafarroako Erdialdea hautatu ziren, eta tokiko ekintzako taldeen izaera aitortu zitzaizkien. Haien tokiko garapenerako estrategiak eta jarduteko lurralde-esparruak onetsi ziren, eta zenbait zuzkidura finantzario eman zitzaizkien.

Nafarroako Gobernuaren 2008ko azaroaren 17ko Erabakiaren bitartez, urte anitzeko gastu bat hitzartu eta eman zen, 2008tik 2015era bitarteko. Geroago, azaroaren 24an, 606/2008 Foru Aginduari jarraituz, urte anitzeko dirulaguntza bat eman zitzaizkien tokiko ekintzako taldeei, beren tokiko garapeneko programak gauza zitzaizkien.

2008ko azaroaren 25ean, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren eta tokiko ekintzako taldeen arteko hitzarmenak sinatu ziren. Horietan, besteak beste, departamentuarekiko harremanak eta neurriak eta eragiketak kudeatzeko xedapenak finkatu ziren: laguntzei buruzko arauak, enplegua, kontrola eta jarraipena, gastuaren hautagarritasuna, adierazleek ekarpena eta abar.

2008ko abenduan, tokiko ekintzako taldeei laguntza bat ordaindu zitzaizkien funtzionamendu gastuetarako, prestakuntza hartzeko eta sustatzeko. Zehazki, 71.452 euro ordaindu zitzaizkien Cederna-Garalurrei, 37.862,35 euro EDER Partzuzergoari; 50.162,90 euro TEDER Elkarteari, eta

48.244 euro Nafarroako Erdialdeari. Guztira, 208.721 euro ordaindu dira. Horietatik, zati bat FEADERetik jaso dira, kofinantziazioko zati proportzionaletik (% 55); hau da, 114,247 euro.

Nafarroako Landa Garapeneko Programako 4. ardatzak (Leader) guztira 23.778.000 euroko gastu publikoa du; horietatik, 13.077.900 euro FEADERek (% 55) emanak dira eta 10.700.100 euro Nafarroako Gobernuak (% 45). Gastu publiko hori Landa Garapeneko Programaren iraupenean zehar exekutatu da; izan ere, urte bakoitzeko exekuziorako aurreikuspen bat egin zen. 2008an, FEADERetik, esan bezala, 114.247 euro jaso dira. Izan ere, 2008an exekutatuak gastuaren zati pro-

portzionala da hori. 2008rako aurrekontuetan jasotakoarekin dagoen aldea datozen ekitaldietan jasoko da; izan ere, 2009tik aurrera 4. ardatz horretan, tokiko ekintzako taldeak beren tokiko garapenerako estrategien bitartez hautatzen dituzten proiektuak exekutatuak hasiko dira.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 28an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

## **Galdera, Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planaren barruan 2007an eta 2008an guztira betetako gastuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planaren barruan 2007an eta 2008an guztira betetako gastuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 3ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Landa Garapenaren

2007-2013 Urteetako Planaren barruan 2007an eta 2008an guztira betetako gastuari buruz (PES-101). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Foru Komunitatean Landa Garapeneko Programaren barruan guztira exekutatuak gastuak 28.284.329 euro egin zituen 2007an (9.219.649, FEADER-ek eta 19.064.680 Nafarroako Gobernuak), eta 2008an, berriz, 40.480.586 euro (14.307.870 FEADER-ek eta 26.172.716 Nafarroako Gobernuak).

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 24an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria